




ANDREkintzailea

EMAKUMEEK GIDATUTAKO EKINTZAIETZA SUSTATZEKO PROGRAMA (2025)



Bilbao
Metropoli30

EDUKIA

SARRERA

I. IKASTEKO ELKARRIZKETAK, EMAKUMEEK SUSTATUTAKO ENPRESEN ARTEAN

I. Blokea. Lidergo eraginkor baterako trebetasun pertsonalak

II. Blokea. Harreman komertzial eraginkorrak

III. Blokea. Social-media, enpresa txiki eta ertainentzat

IV. Blokea. Erabaki ekonomikoak eta estrategia eraginkorrak

II. SORMENERAKO TRESNAK ENPRESAN

III. NETWORKING EKITALDIAK ETA ENPRESA-AHALDUNTZEA

IV. COACHING PERTSONALIZATUA

V. MENTORING-PROGRAMA

SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak emakumezko enpresariei zuzendutako ANDREkintzailea programa antolatzen du, emakumeek zuzendutako enpresak indartzen laguntzeko helburuz. Bilbao Metropoli 30ek koordinatutako programa da, eta Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen (AED) eta EmakumeEkin elkartearen laguntza dauka programa garatzeko.

ANDREkintzailea urtebetean garatzen da, eta esperientziaren bidez honako alorrak lantzen dira: lidergoa, estrategia digitala, kudeaketa komertziala eta ekonomiko-finantzarioa eta sormena. Era berean, networkingerako guneak daude, eta erraztu egiten ditu coaching eta mentoring saioak.

Saioak Beaz-en izango dira (Sabino Arana, 8. Bilbo).

Programa informazio saio batekin hasten da urtarrilaren 10ean, ostirala, 10:00etatik 11:00etara, Beazen, zalantzak argitzeko.

Lehenengo saioa hasierako programako parte-hartzaileentzat networking bat da. Urtarrilaren 24an, ostirala, izango da, 8:30etatik 10:30etara, BEAZen. Helburua elkar ezagutzea da, networkinga errazteko eta emakume ekintzaileen eta enpresarien arteko sareak ehuntzeko. Miren Lauzirikak dinamizatuko du.



I. IKASTEKO ELKARRIZKETAK, EMAKUMEEK SUSTATUTAKO ENPRESEN ARTEAN

I. BLOKEA. LIDERGO ERAGINKOR BATERAKO TREBETASUN PERTSONALAK

Helburuak: lidergo eraginkorra garatzeko nor bere trebetasunei buruzko esperientziak trukatzea.

Iraupena guztira: 12 ordu

1. Autoezagutza zure ekintzailtzan arrakasta izateko. Ezagutu zeure burua!

Ekintzaile gisa, ziurrenik denbora eta dirua inbertitzen dituzu negozio-eredua, web-orria, logoa eta marketin-estrategia diseinatzen. Baina agian zerbait oso garrantzitsua ahazten ari zaizu, zugar inbertitzea. Lehen urratsa zeure burua hobeto ezagutzea da, zure indargune zein beldurrak, zure negozioa nahi zenukeen bezala ez haztea eragiten duten blokeoak eta segurtasun falta pertsonalak identifikatzeko. Uste mugatzaile horiek indartzaile bihurtzeak zure negozioa bultzatzen eta zugar gehiago sinesten lagunduko dizu. Horrela, zure motibazioa eta zeure buruarekiko konfiantza areagotuko dira. “Zure ekintzailtza arrakastatsua izatea nahi baduzu, has zaitez zeure burua ezagutzen!”

Iraupena: 2 ordu (tailer bat)

Eguna: urtarrilaren 31, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Estibaliz Romaña (coacha)

2. Eragin handiko komunikazio profesionala

Zure bezeroengan eta ekipoengan eragina izateko modurik indartsuena zure hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa pertsona bakoitzak behar duenera egokitzea da. Profil desberdinekin eta ingurune desberdinetan komunikatzen ikasiz, elkarrizketaren buru izan zaitezke enpatiatik abiatuta.

Iraupena: 2 ordu

Eguna: otsailaren 7a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Carmen Burguete (Coaching Factory)

3. Helburuak lortzera orientatzea

Kudeatzeko informazio gehiegi izateak, etenek, eta, orokorrean, egunerokoak gure enpresa-helburuetatik aldentzeko gaitasuna dute, eta gure denboraren zati gehiena pasatzen dugu gure lehenetsunak ez diren jarduerak egiten. Lanpetuta gaude, baina ez gara izan gaitzkeen bezain produktiboak. Garrantzitsua dena konpontzeko gure energia ardatzen jakitea funtsezko gaitasuna da, enpresa-arrakasta lortzeko.

Iraupena: 2 ordu (tailer bat)

Eguna: otsailaren 14a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Eva Ortiz (psikologoa eta coacha)

4. Zuzendaritza-jarduera osasuntsua

Egoera fisikoak eta mentalak asko eragiten du gure lan-jardueran. Lo falta, elikadura desegokia, estresa... ez da hazitegi ona gure egunerokoari aurre egiteko. Lantegi honen helburua da gure osasuna zaintzeko jarraibideak eta giltzarriak eskaintzea.

Iraupena: 2 ordu (tailer bat)

Eguna: otsailaren 21a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Susana Zaballa (Consultora Mindfulness y Conscious Sale)

5. Denboraren kudeaketa

Denbora antolatzeko metodo pertsonala sortu eta erabiltzeko oinarriko baliabideetan entrenatzea da saioaren helburua; azken batean, denbora kontrolatzea, bizitzako arlo garrantzitsu guztiei (lana, familia, lagunak eta osasuna) behar duten denbora eskaintzea.

Iraupena: 2 ordu (tailer bat)

Eguna: otsailaren 28a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Laura Garro (Masdosa)

6. Talde-lana

Talde-lanaren ezaugarri nagusietan sakontzeko dago prestatuta saioa. Lantaldea eta bestelako taldeak ezberdintzea da helburua, eta, horrez gain, lantaldearen egitura zehaztea (orientazioa, rolak) eta komunikazioaren bidezko elkarlana bultzatzeko oinarriak ezartzea.

Iraupena: 2 ordu (tailer bat)

Eguna: martxoaren 7a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Laura Garro (Masdosa)

II. BLOKEA. HARREMAN KOMERTZIAL ERAGINKORRAK

Helburua: analizatu beharreko gako-puntuak eta beharrezko tresnak ezagutzea, fidelizazioaren eta bezeroak modu eraginkorrean kudeatzearen bitartez salmentak areagotzeko.

Iraupena: 8 ordu

1. Zure enpresaren balio erantsia eta jarrera komertziala

Zeintzuk dira gure bezeroak? Nola daude banatuta? Zein ekarpen egiten digu bezero bakoitzak gure emaitzen kontuan? Zeintzuk dira gure produktu/zerbitzu errentagarriak? Gure balio erantsia ondo identifikatuta eta islatuta al dago gure zerbitzuetan? Galdera horiek eta beste batzuk erantzutea funtsezkoa da gure estrategia komertzialak modu eraginkorrean lagun diezaion enpresaren iraunkortasunari.

Iraupena: 3 ordu (3 orduko tailerra)

Eguna: martxoaren 21a, ostirala, 8:30etik 11:30era

Dinamizatzailea: Susana Zaballa (Consultora Minfulness y Conscious Sale)

2. Bezeroekin harreman eraginkorra

Bezeroekiko fidelizazioa funtsezkoa da, gure merkatu-egoeran bezero berriak lortzea zaila eta garestia baita. Nola lortu eta mantendu bezeroaren konfiantza; bere partner izatea, eta ez enpresa hornitzailea; bezeroaren arazoei konponbide eraginkorra ematen ikastea; horiek izango dira landuko ditugun gaiak

Iraupena: 3 ordu (3 orduko tailerra)

Eguna: martxoaren 28a, ostirala, 8:30etik 11:30era

Dinamizatzailea: Silvia Angueira (Grupo Bentas)

3. Zure negozioko datuak babesteko oinarriak (RGPD)

Iraupena: 2 ordu (2 orduko tailer bat)

Eguna: apirilaren 4a, ostirala, 8:30etik 10:30era

III. BLOKEA. KOMUNIKAZIOA, SOCIAL-MEDIA, ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAT

Helburuak: Internetek enpresarentzako aukera asko zabaltzen ditu. Horretarako, enpresek ingurune hori erabili behar dute, eta webgune bat baino zerbait gehiago izateko helburua eduki behar dute, bai eta hori bisita-txartel birtuala izatekoa ere. “Egote” hutsa, gaur egun, ez da aukera bat. Ezinbestekoa da estrategia bat eta metodo bat garatzea.

Iraupena: 20 ordu

1. Nola garatu komunikazio plan estrategiko bat: erabakiak hartzea, baliabideak optimizatzea eta neurtzea

Plan estrategiko on bat garatzen ikasteak gure enpresa egituratzen lagunduko digu, erabaki estrategikoak hartzen, gure baliabideak zentzuz erabiltzen eta gure negozioak ahalik eta ondoen aurrera egin dezan kontuan hartu beharreko datuak ezagutzen.

Iraupena: 4 ordu (2 orduko bi tailer)

Egunak: maiatzaren 9a eta 16a, ostiralak, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Ana Santos (Eventosfera)

2. Koherentea al da gure estrategia digitala? Online entzute aktiboa

Zure egungo strategiak laguntzen al dizu zure enpresa sektorean erreferente gisa kokatzen? Nola heldu zure bezero potentzialengana eta kanal digitalen bidez hura fidelizatzen? Nola jakin zer esaten den gure negozioari buruz?

Edukia:

- Online egoteko arrazoiak eta online-estrategia bat garatzeko pausoak.
- Estrategia garatzeko praktika onak (eta txarrak)
- Entzute aktiboa: badakizu zer dioten zure negozioari buruz?
- Zer egin enpresa baten ospea kaltetu denean.

Iraupena: 6 ordu (2 orduko hiru tailer)

Egunak: maiatzaren 23a eta 30a, ekainaren 6a, ostiralak, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Beatriz López Dañobeitia (Bcome Digital)

3. Nola egin e-Mail Marketing-a, SPAM bihurtu gabe

Posta elektronikoa enpresa-komunikaziorako modu eraginkor gisa erabiltzea eta Mailchimp bidalketa pertsonalizatuak eta segmentatuak egiteko tresna gisa erabiltzea; ezarritako markaren irudia errespetatzen duten kanpainak sortzea, eta ezarritako lege-baldintzak betetzea.

Iraupena: 2 ordu (2 orduko tailerra)

Eguna: ekainaren 13a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Beatriz López Dañobeitia (Bcome Digital)

4. Marketing B2B | Eraiki zure kontaktu profesionalen sarea Interneten | Social Selling

Internet bidez kontaktuen sare bat sortzea izan daiteke gure negozioa hazteko oinarria; leadak erakartzeko eta aginte-profila duten pertsonak identifikatzeko iturria. Hori dela eta, sare sozial profesionalean online egiten dugun jardura (social selling) oinarri bat da negozioak garatzen lagunduko duen kontaktu profesionalen sare bat eraikitzeko.

Iraupena: 4 ordu (2 orduko bi tailer)

Eguna: irailaren 19a eta 26a, ostiralak, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Ana Santos (Eventosfera)

5. Social-media ETE-entzat

Arrakasta ziurraz eta ikuspegi profesionalaz Community Management on baten gaitasunez arduratzeko tresnak eta metodologia.

Iraupena: 4 ordu (2 orduko bi tailer)

Egunak: urriaren 3a eta 10a, ostiralak, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Beatriz López Dañobeitia (Bcome Digital)

IV. BLOKEA. ERABAKI EKONOMIKOAK ETA ESTRATEGIA ERAGINKORRAK

Helburua: oinarrizko finantza-kudeaketarako tresnei buruz hitz egitea eta horiek partekatzea, erabaki iraunkorrak hartzeko eta gure enpresa handitzeko aukera ematen duten estrategiei aurre egitea.

Iraupena: 8 ordu

1. Zer egin zure enpresa haz dadin

Iraupena: 2 ordu (2 orduko tailer bat)

Eguna: azaroaren 7a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Charo Lorenzo de las Moras (Asecoex)

2. Erabaki jasagarriak hartzeraz bideratutako datuen analisisa

Gai gara jakiteko zein datuk eskaintzen duten gure negozioarentzako funtsezko informazioa? Gure enpresan badaukagu datu horiek azkar eta modu fidagarrian eskuratzeko tresnarik?

Iraupena: 4 ordu (2 orduko bi tailer)

Egunak: azaroaren 14a eta 21a, ostiralak, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Marian Eguskiza (Interalde)

A thin vertical line starts from the top of the page and ends at a white circle with a teal outline, which is positioned at the top edge of the teal header bar.

II. SORMENERAKO TRESNAK ENPRESAN

Helburuak: lidergo berritzailea garatzeko sormena elementu giltzarri gisa ezagutzea eta garatzea

Iraupena: 6 ordu

- **Lidergoa, sormena taldean sustatzeko**

Sormenak lidergoetan daukan garrantzia esperimentatzea eta horretaz hausnartzea. Nork bere sormena landuko dugu gure lidergo-estilo bereziarekiko autokonfiantza lantzeko eta dohain indibidualak sustatzeko.

Iraupena: 4 ordu (2 orduko bi tailer)

Egunak: urriaren 17a eta 24a, ostiralak, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Miren Lauzirika (Art for Life!)

- **Visual thinking-a enpresarentzat**

Pentsamendu bisuala tresna boteretsua da; izan ere, kontzeptuak ikusten laguntzen du, eta erraztu egiten du hala taldeak nola bezeroek euren ideiak ekartzea. Hizkuntza bisualaren oinarritzko ezagutza landuko dugu, egunerokoan erabil dezagun.

Iraupena: 2 ordu (tailer bat)

Eguna: urriaren 31a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Miren Lauzirika (Art for Life!)



III. NETWORKING EKITALDIAK ETA ENPRESA-AHALDUNTZEA

- **Hasierako networkinga**

Helburua elkar ezagutzea da, networkinga errazteko eta emakume ekintzaileen eta enpresarien arteko sareak ehuntzeko.

Aurreikusitako iraupena: 2 ordu

Eguna: urtarrilaren 24a, ostirala, 8:30etik 10:30era

Dinamizatzailea: Miren Lauzirika (Art for Life!)

- **Sinergiak**

Programan parte hartu dutenen artean enpresa-helburuak lortzeko sinergiak sustatzeko topaketa bat, gaitasun eta baliabideen trukaketa baten bidez, euren markaren irudia hobetzeko helburuz.

Aurreikusitako iraupena: 3 ordu

Eguna: martxoaren 14a, ostirala, 11:00etatik 14:00etara

Dinamizatzailea: Miren Lauzirika (Art for Life!)

- **Amaierako networkinga eta azken gogoetarako saioa**

Networking ekitaldi bat ANDREkintzailea programa itxeko: zer eramango dut? Zer eman dit? Zer eman diet nik programako gainerako kideei?

Aurreikusitako iraupena: 2 ordu

Eguna: azaroan edo abenduan, zehazteke

Dinamizatzailea: Miren Lauzirika (Art for Life!)

A vertical grey line starts from the top of the page and ends at an orange circle. The circle is positioned at the top edge of a wide orange horizontal band that spans the width of the page.

IV. COACHING PERTSONALIZATUA

COACHING PERTSONALIZATUA

DEFINIZIOA ETA HELBURUA: Coaching deritzon lan-metodoa aldaketa-prozesu batean, helburu bat lortzen edo arazo edo gatazka bat konpontzen lagun egitean datza. Haren oinarria da pertsonak badituela horretarako erantzunak zein baliabideak. Coacha katalizatzailea baino ez da, abiatzeko prozesua sustatzen duena.

Coachingeko prozesua lagungarria izango da parte-hartzailea dituen baliabideez ohar dadin eta baliabide horietaz une egokian baliu dadin, bere ahalmenak erabil ditzan, bere oreka eta ongizatea aurki ditzan bere lan metodoaz hausnarketa eginez, haren jakin-mina esna dadin eta aurrera egitera bultzatu, bere helburuak argi ditzan, oztopoak ezagutu ditzan eta halakoak konpontzeko bidetik jo dezan erabakiak hartzerakoan hobetuta eta erabakion gaineko erantzukizuna sustatuta.

Jardueraren iraupena: Coaching pertsonalizatua 2025eko urtarrila eta abendua bitartean egiten da. Ordutegia ekintzailearen eta coacharen artean adostuko da.



V. MENTORING-PROGRAMA

MENTORING-PROGRAMA

DEFINIZIOA ETA HELBURUA: Mentoringa pertsonen ahalmena garatzeko helburua duen tresna da, eta ezagutza-transferentzian eta esperientziaren bidez ikastea oinarritzen da. Hori guztia harreman pertsonal bat, eta konfiantzazkoa, ezartzen den prozesu batean gertatzen da. Kasu honetan, harreman horretan AHOLKULARI bat dago, batetik, bere AHOLKATUA, bestetik, gidatzen, estimulatzen, desafiatzen eta adoretzen duena, haren beharrianen arabera, bere onena eman dezan maila pertsonal zein profesionalean. Programa honetako tutoreak ekintzailetzako prozesutik igaro diren emakumeak dira, eta, hortaz, emakume aholkatuei era praktikoa eman ahal diezazkiekete aholkuak prozesuko puntu bakoitzean

Jardueraren iraupena: Mentoringa 2025eko urtarrila eta Abendua bitartean egiten da. Orduetgia ekintzailearen eta tutoreen artean adostuko da.

